





Trenbidea gurutzatzea

Trenbide-inguruneetako
segurtasunari buruzko
HAURRENTZAKO gida




AGENCIA ESTATAL
DE SEGURIDAD FERROVIARIA



AÑO EUROPEO
DEL FERROCARRIL **2021**

EDUKIEN TAULA

Zeri buruz hitz egingo dugu?	3
Trenbideari buruzko hiztegia	4
Ba al zenekien...?	7
Segurtasunari buruzko arau bizkorrak	8
Trenak dauden inguruneetan seguru egoteko 10 gako	9
Irakasleentzat: orientazio pedagogikoak	12



ZERI BURUZ HITZ EGINGO DUGU?

Trena garraiobide bizkor eta ekologiko bat da. Ia edonora eta erosotasun osoz joan gaitzke trenez. Hala ere, kontuan hartu behar da **tren eta tren-geltokietan arriskuak daudela**. Hori dela eta, funtsezkoa da **seguru ibiltzen jakitea**.

Gida honetan, trenei buruzko gauza interesgarriak ikasiko ditugu, nondik gurutatu behar da, nola egon seguru trenaren zain gaudenean, etab.

Has gaitzen.





TRENBIDEARI BURUZKO HIZTEGIA





Nasa

Tren-geltokietan, trenbidean zehar dagoen espaloi bat da, bidaiariak trenaren zain egoteko, trenean sartzeko eta trenetik irteteko. Segurtasun-eremua lerro batek mugatu ohi du; normalean, horia da lerroa.

Katenaria

Tren, tranbia eta abarren makina batzuei korrontea helarazten dien kable elektrikoa; korronterik gabe ez lirateke ibiliko. Tren-geltokietan eta trenbidean ikusten da.





Maila berean dauden nasen arteko gurutzagunea

Tren-geltokietan, nasa batetik bestera seguru igarotzea ahalbidetzen ditugun pasabide seinaleztatu bat da.

Tren-geltokia

Bertatikirtetendira trenak, bertara iristen, edo bertan egiten dituzte geldialdiak, eta bertan igotzen dira pertsonak trenera, eta bertan jaisten trenetik. Hirietako eraikin publiko adierazgarriak dira, eta batzuk monumentu historiko ere izendatuta daude.




Trenbide-pasagunea

Trenbidearen eta errepidearen arteko gurutzagunea. Normalean, seinalizatuta egoten da, eta, batzuetan, langak ditu, eta semaforoak eta soinua. Hiri eta herrietan daude trenbide-pasaguneak, baina baita landagunean ere.


Azpiko pasabidea

Trenbidea seguru gurutzatzeko tunela edo koridorea da. Nasan egoten da.





TRENBIDEARI BURUZKO HIZTEGIA





Gaineko pasabidea

Trenbidea seguru gurutzatzeko pasagunea edo zubia da. Nasan egoten da.

Trena

Bagoi multzo bat da, eta pertsonak edo salgaiak garraiatzen dituzte, normalean, lokomotor bati lotuta doaz, eta hark eramaten ditu herrestan trenbide gainerik.




Trenbidea

Trenen bidea da; errailak ere esaten zaio. Trabesen gainean bermatuta egoten dira; trabesek errailei eusten diete, eta, haiei esker, errailak elkarrengandik distantzia berera daude. Normalean, harri batzuen gainean jarrita egoten dira trabesak. Harri horiei balasto esaten zaie, eta trenaren pisua banatzen dute, baita ura iragazten ere euria egiten duenean.



BA AL ZENEKIEN...?





Trenak **oso abiadura handian joan daitezke**, automobilak baino askoz ere handiagoan.

Hain abiadura handian doazen trenak xurgatze-efektua eragin dezakete, eta hutsa sortu, eta horrek trenaren azpira eraman zaitzake.

Trenak asko pisatzen dute.

Abiadura handiko tren batzuek **322 tona** inguru pisatzen dute, **43 elefante** batera adina.



X 10

Trenak **distantzia handia** behar dute erabat gelditzeko, **oso azkar baitoaz eta asko pisatzen baitute**.

160 km/h-ko abiaduran doan tren batek **1.000 metro** inguru behar ditu; hau da, **10 futbol-zelai** adinako distantzia.



Tren batzuek elektrizitatea behar dute ibiltzeko. Trenak **oso potentzia elektriko handia dute**, **120 automobilek** adinakoa. Hori dela eta, **oso arriskutsua da trenbidea edo katenaria ukitzea**. Elektrokutatu egin zaitzake.



Kontuz!

Trenak oso
handiak dira, eta
dirudiena baino
bizkorrago doaz.

Trenak ezin
dute biratu, ezta
noranzkoa aldatu
ere, automobilerik
bezala.

Edozein
noranzkotik,
edozein
trenbidetatik eta
edozein unetan
etor daitezke
trenak.

Trenak
ezin dute
bizkor gelditu.

Trenak
txilibitua
jotzen dute
beti, badatozela
ohartarazteko.

Trenak ez dira
beti ordu berean
pasatzen.

TRENAK DAUDEN INGURUNEETAN SEGURU EGOTEKO 10 GAKO

1. Gelditu **nasako lerro ho-riaren atzean** trenea era-bat gelditu arte. Nasaren ertzetik hurbil bazaude, agian trenak jo edo xurgatu egingo zaitu.




2. Kontuz ibili nasaren eta trenaren arteko hutsunearekin; erraza da estropezu egitea eta oina sartzea. Trenean sartzeko, **eman eskua heldu bati eta sartu oinez**; inoiz ez korrika.

3. Trenaren ateak ixten ari dira? **Itxaron eta hartu hurrengoa.**




TRENAK DAUDEN INGURUNEETAN SEGURU EGOTEKO 10 GAKO





4. Zerbait trenbidera erortzen bazaizu, ez saiatu inoiz hura berreskuratzen. Oso arriskutsua da. **Eskatu beti laguntza** tren-geltokiko langileei, edo esan **heldu bati**, guraso bati edo tutoreari.

5. Tren-geltokietan eta trenen inguruko beste toki batzuetan, ibili beti oinez; **ez joan inoiz korrika**. Ez da jolasteko tokia. Toki horietan arriskuak daude, eta baliteke erortzea.




6. Tren-geltokietan, **ez eraman jantzita aurikularrak, edo jaitsi gailu elektronikoen bolumena**. Horrela, trena bera entzun ahal izango duzu, baita informazio- eta ohararazpen-mezuak ere.

7. Ez hartu bidezidorrik. Tren-geltokietan eta haien in-guruko tokietan, **trenbidea gurutzatzeko pasabide baimendu seguruak daude.**



8. Trenbide-pasabideetan eta nasen arteko gurutzaguneetan: **gelditu, begiratu bi aldeetara, entzun eta pentsatu seguruak ote den gurutzatzea.**

9. Edozein ordutan pasa daitezke trenak, baita programatuta ez badaude ere. Hori dela eta, garrantzitsua da **arriskurik ez dagoen tokietan egotea.** Kontuz ibili.



10. Trenbide-pasaguneetan eta nasen arteko gurutzaguneetan, **jaitsi bizikletatik edo irristailutik;** baliteke gupilak trenbidean harrapatuta geratzea eta zu erortzea. Halakoetan, joan beti oinez.

IRAKASLEENTZAT: ORIENTAZIO PEDAGOGIKOAK

Helburu nagusia da **segurtasunaren kultura sustatzea** eta haurrak gai bihurtzea trenak dauden tokietan daudenean erabaki seguruak hartu ahal izateko.


Irakasleak trenak dauden inguruneetan benetako zer arrisku dauden erakutsiko die ikasleei, eta seguru nola egon hausnartuko dute.

Gida irakurri ondoren, hau proposatzen da:


1. Trenak dauden tokietako segurtasunaz hitz egiteko testuinguru bat sortzea; **trenbide-azpiegiturari eta segurtasunari buruzko oinarritzko kontzeptuak** azaltzea. Orobat, hasi aurretik, haurrek trenak dauden tokietako segurtasunari buruz zer jarrera duten jakin nahi da, ebaluazio moduan.
2. Segurtasun-edukiak azaltzea: **trenak dauden tokietako arrisku-portaerak**; trenak dauden tokietara baimenik gabe sartzearen ondorioak; portaera seguruak.

Horrez gain, trenbide-segurtasuneko edukiak txertatu nahi dira irakasgaien curriculumeko jardueretan; adibidez, natur zientziak, matematika, hizkuntza eta literatura, gizarte-zientziak eta arte-hezkuntza.

Eskerrik asko laguntzeagatik!



GELDITU, BEGIRATU, ENTZUN, BIZI!



Trenbidea
gurutzatzea